

## ARTEAKO UDAL FUNTSEKO ISAD ARAUA

### Identifikazio-arloa

Erreferentziazko kodea	ES 48020 AHFB/BFHA U48023
Titulua	Arteako Udal Artxiboa
Data(k)	1679 - 1940
Deskribapen maila	Funtsa
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Metro linealak: 10,55 m/l</li> <li>- Kaxak: 84</li> <li>- Liburu solteak: 8</li> <li>- Espediente-kopurua: 1.725</li> </ul> Papera.

### Testuinguru arloa

Ekoizlearen izena	Arteako Udala
Instituzio historia	<p>Arratia-Nerbioi eskualde bizkaitarrean kokatzen da Artea, Durangoko barruti judizialaren barruan.</p> <p>Gaztelu eta Elexabeitiako parrokiek osatutako elizatea da, Gernikako Batzar Nagusietako hirurogeita batgarren eserlekua hartu zuena.</p> <p>Elexabeitiako San Migel eliza, gaur egun ermita dena, XVI. mendearen hasieran eraiki zen, eta landa-estilokoa da. Eta Gazteluko Andre Maria parrokia-eliza ere bazegoen. Bi parrokiak desagertu egin ziren 1881ean, eta Gaztelu-Elexabeitiako Jesusen Bihotzeko parrokiak bildu ziren.</p> <p>Landa-eremuko egitura ekonomikoa duen udalerrria da, biztanleria urrikoa. Jarduera ekonomiko nagusiak nekazaritzari, abeltzaintzari eta baso-ustiapenari lotuta egon dira. Garapen industrialak urria izan zen. Burdinola eta errota batzuk egon ziren.</p>



<b>Artxibo historia</b>	<p>Arteako elizatearen dokumentazioa udal-artxiboan gordeta egon izan da, harik eta 1992an Bizkaiko Foru Agiritegi Historikora lekualdatu zen arte. Lekualdaketa horretan batez ere 1940 baino lehenagoko dokumentazio historikoa sartu zen; gainerako dokumentazioak udal-artxiboan jarraitzen du.</p> <p>Elizate horretako tresna eta paperen bi inbentario ezagutzen dira, 1746 eta 1781ekoak.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak dokumentazioaren lekualdaketa baino lehen egindako txostenaren arabera, artxiboa udaletxeko bi espazio bereizitan kokatzen zen. Lehenengo espazio bat udal-bulegoen ondoan. Bertan, dokumentazio historikoaz gain, administrazio-kudeaketa, inprimakiak eta bulego-makineria zeuden. Eta bigarren leku bat goiko solairuan, non kontabilitate-liburuak eta ondo kontserbatutako kontu-espeditenteak gordailututa baitzeuden.</p> <p>Antzeko gaiei buruzko dokumentazioa paper-sortatan multzokatuta zegoen, eta antolamendu hori Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako diruz lagundutako planetako bati esker egin zen.</p>
<b>Sarrera modua</b>	Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arteako Udalak 1992ko abenduaren hamarrean sinatutako lankidetzaren hitzarmena betetzeko, BFAHn 1992ko uztailaren 13an sartu zen dokumentazioa.

## Eduki eta egitura arloa

<b>Irismena eta edukia</b>	<p>Arteako elizateak eta Udalak 1679 eta 1940 bitartean sortutako dokumentazio historikoa.</p> <p>Gainera, Udal Epaitegiaren 1840 eta 1939 arteko 342 dokumentu dituen zotzi kutxa daude.</p>
<b>Balorazioa, hautaketa eta ezabaketa</b>	Kontserbazio iraunkorreko dokumentazioa.
<b>Sarrera berriak</b>	Beste hitzarmen bat sinatuz gero, sarrera berriak egon daitezke.



Erakundea	<p>Dokumentazioa Udal Artxibozainen Lantaldearen sailkapen-koadroaren bidez antolatu da, serie batzuekin handituta.</p> <p>Koadroa BFAHn dauden udalerrri guztietarako erabiltzen da, eta, beraz, baliteke udalerrri horretan sortutako dokumentazioaren artean serie batzuk ez islatzea.</p> <p>Gobernuaren, Idazkaritzaren eta Udal Administrazioaren eta Ogasunaren jarduerak hartzen ditu, honela:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Gobernua: 131 dokumentu 1679 eta 1939 bitartekoak.</li><li>– Idazkaritza: 718 dokumentu 1724 eta 1940 bitartekoak.</li><li>– Ogasuna: 533 dokumentu 1720 eta 1940 bitartekoak.</li></ul>
-----------	---

## Sartzeko eta erabiltzeko baldintzen arloa

Sartzeko baldintzak	Sarrera askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Erreproduktzio baldintzak	Erreproduktzio askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Dokumentuen hizkuntza/idazkera	Gaztelania.
Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	Kontserbazio-egoera, oro har, ona da.
Deskribapen tresnak	<p>Dokumentazio guztia katalogatuta dago, eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak erabiltzen dituen deskribapen-tresnen bidez eskura daitezke:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Sailkapen-koadroa.</li><li>ARWE datu-basea, artxiboari buruzko katalogazioa kudeatzeko. Hainbat sarbide-puntu eta onomastika, toponimia eta gaikako indize ditu.</li><li><a href="#">ARIT datu basea</a>, kanpo-kontsultarako, aurrekoaren informazio eta sarbide berarekin.</li></ol>

## Lotutako dokumentazio arloa

Jatorrizko dokumenturik ote dagoen eta horien kokalekua	Dokumentazio guztia originala da.
---	-----------------------------------



Kopiarik ote dagoen eta horien kokalekua	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa gordetzen duen dokumentazioaren zati bat digitalizatzen eta Interneten erabiltzaileen eskura jartzen ari da. Sarbidea <a href="#">ARITen datu-basea</a> ren bidez ere egiten da: Akta-liburuak, 1830 baino lehenagoko dokumentazioa, 1900 baino lehenagoko dokumentazioa (planoak barne), eta 1910 baino lehenagoko biztanleen erroldak digitalizatu dira.
Lotutako deskribapen unitatea	Arteko Udalarekin zerikusia duten dokumentu-iturriak daude BFAHren atal guztietan, batez ere administrazio-sailean eta sail judizialean. Udalak 1940tik gaur egun arte sortutako dokumentazioa udaletxean dagoen udal-artxiboan gordetzen da. 1607 dokumentazio-kutxa ditu, 189,5 metro lineal hartzen dituztenak. Inbentario bat dauka, eta horren arduraduna idazkaria da. Harekin harremanetan jar daiteke 94 673 92 05 telefono-zenbakian eta idazkaritza.artea@bizkaia.org helbidera mezu bat bidaliz.
Argitalpenei buruzko oharra	Rementeria Fernández, Arantza (1996). Arantzazu y Artea: Estudio Histórico-Artístico. Monografías de los Pueblos de Bizkaia. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao.

## Oharren arloa

Oharrak	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak artxibo historikoaren funtzioa betetzen du funtsak gordailutu dituzten udalerrientzat.
---------	--

## Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4 SL enpresak Bizkaiko Agiritegi Historikoko udal-atalerako egindako deskribapena, bertako teknikariak gainbegiratuta.
Arauk edo erregelak	General International Standard Archival Description, Second Edition, ISAD (G) (Agirien Deskribapenerako Nazioarteko Arau Orokorra). Deskribapen Agirien Batzordeak hartutakoa Agirien Nazioarteko Kontseiluan, Stockholmen (Suedia), 1999ko irailaren 19-22an. Madril. 2000.
Deskribapenaren data	2020/01/20